

Ekonomiaz

**Maidar Iantzi
Goienetxe**

Azkenaldian arreta ematen dit inguruan ekonomiaz hainbertze aditzeak. Ez dakit zeinek ez dakit zenbatean alokatu duela etxea, bertzeak bi garaje dituela auskalo zertarako, etxea ahalik eta garestien saldu behar dela... Etxebizitza negozio gisa, eta bitartean, jendea kalean lo. Ekonomia erran dut, baina dirua erratea zehatzagoa da. Gasolina ez dakit zenbatean dagoela, dena igo dela... Dena soldata izan ezik, langile xumeena behintzat. Euri aunitz egin du soldatarik gabe berdin-berdin ariko nintzela erranez lanean hasi nintzenetik.

Benetan nioen hori, eta urtero-urtero etxe bat erostera animatzen ninduen banketxeko gizonarekin haserretzen

nintzen. Nik ezetz eta ezetz, eta beti in-sistitzen. 2006a zen. Orduan ez nuen nahi jabetzarik, ez nuen nahi gidabai-menik ere.

Euria lurraren kontra eta trumoiak ere makina bat lehertu dira geroztik. Hipoteka bat dut, baina zenbakiak ahazten segitzen dut. Posible dudalako, jakina. Larri ibili nintzen garaian ederki nekien nire kontu korrontearen sarrera eta batez ere irteeren berri. Familiaren babesa nuela banekien, baina halere ez nintzen ongi sentitzen, nire independentzia ekonomikoa nahi bainuen. Jubilaziorik ez duten emakumeez oroitzen naiz, haurrak izan zituztenez geroztik lanik ordaindu ez dietenez. Zer gertatuko litzaeke bananduko balira?

Maite gaituztenengandik jasotzen dugun babesaren eta zaintzaren balioa zenbatezina da. Haurdunaldi, erditze eta edoskitzearena ere, infinitu. Ezin dira neurtu, ez kontratatu ez erosi. Baina horiek ere ekonomia dira.

Arreta ematen dit bi urteotan pasa duguna pasata nola segitzen dugun gurpilean jira eta bira. Arratsetan, leher egina ohantzero sartzean, ‘bertze egun bat joan da ziztuan!’, harritzen naiz, baina horrekin batera eguneko zerbait polita, merezi izan duena, betetzen nauena aurkitzeak poztien nau eta horien artean beti dago titia, lurra ukitzean bezala elektrizitatea baretzen didana, plazerez betetzen nauena eta gauetan berdin ernatu eta lokartzen nauena. •

Bat, bi, hiru...

**Xabier Mikel
Errekondo**

Gustuko ditut zenbakiak. Gehiago, esango nuke ikasketak zientziatetik bideratu izanaren errudun nagusiak direla. Boteretsuak dira zenbakiak, dena dezakete eraiki eta, era berean, deseraiki eze-rezeraino, zerbait dena zero handi bat bilakatuz.

Zero.

Bat da norbera. Lehena, urrearen jabe, laudorioen objektu eta banitatearen subjektu. Unitate perfektua, ez zatitzetik ez batez bestekorik onartzen ez duena. Bat ez da asko mundu zabalean, baina bat egitetik dira xede handienak lortzen. Batetik dira sortzen bestiak.

Bi gara gu. Bigarrena zilarra da, ia urrea da baina ez da. Batek baino gehiago dezakete bik. Bi ez dira asko, baina biak ala biak dira beharrezko harreman-tzeko, gutxienez.

Hiru. Hirugarrena brontzea da, kontsolaziozkoa, gutxietsitakoa. Ahanzturak eraman egiten duena edo adinak, dela hirugarren mundua dela hirugarren adina. Alta, hiruk badu emankorretik ere hirukoiztean edo errealtateari azken dimentsioa ematean eta zortetik baduzu hiru eta hiru hogeita hamahiru jainkoa lez birsortzen bazara...

Lau. Laugarrenaz ez da inor oroitzen. Zenbaki laua da irudiagatik edo grisa

ikusten dut begiak malkoz lausoturik baneuzka bezala, nahiz garbiago “laubegi” naizenetik.

Bosta zutabea da hamarreko zenbaki borobilak osatzeko, eta elkarren arteko jarreraren oinarri: niri bost zer dioten besteek, ni bat naiz-eta berdin emango diet bostekoa.

Ez fidatu zenbakiez, zenbaki bera asko edo gutxi izan baitaiteke ordezkatzeten duenaren arabera. Baina “Seiak bat” izan nahi badugu ezinbestean batzetik izango da.

Honaino iritsita egin nik bezala, zenbakiak zorabiatzen nautenean zerotik hasten naiz... enegarrenez. •